

EAEko ekonomiak % 3,9ko hazkunde «sendoa» izan zuen 1995. urtean

19.130 enplegatu gehiago eta 8.000 langabe gutxiago egon zirela ziurtatu du Jauregik

Ramon Jauregi Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia eta Lan sailburuak oso ikuspegi baikorra agertu du EAEko ekonomiaren bilakaerari buruz. Barne Produktu Gordina (BPG), komunitateak sortutako aberastasuna, % 3,9 hazi zen 1995ean, inguruko lurraldeetan baino gehiago.

Joseba Aiarza / Bilbo

EUSKAL ekonomia oso ondo doa, baietsi zuen Jauregik iazko datu ekonomikoak ezagutaraztean. Urte berean, EEBBetan % 2,1 hazi zen ekonomia, Alemanian % 1,8, Britainia Handian % 2,6, Frantzia % 2,1 eta Espainian % 3 inguru.

Hala ere, hazkunde ekonomikoak EAEn eta mundu osoan apaltzen ari dela gogoratu zuen sailburuak. Haren ustez, apaltasun honek ez du zikloaren aldaketa erakusten, hazkundearen «geldialdi teknikoak» baizik. Ondorioz, hurrengo bi ekitaldietan ekonomi hazkundeak maila onean jarraituko duela aurreikusten du Gasteizko Gobernuak, orain baino motelago bada ere.

Aurtengo lehen hiruhilabeteko datuak erabakigarriak izango dira urtearen bilakaera zehazteko. Ekonomia Sailaren iritziz, aurtengo lehen hiruhilekoan hazkundeak apal segituko du, baina hirugarren hiruhilekoan berriz egingo du gora. Ondorioz, 1996aren bukaeran hazkunde ekonomikoak % 3 ingurukoak izango litzateke, eta 1997an zertxobait apalagoa.

Industrian oinarritutako hazkunde sendoa • EAEko hazkundeak «oso sendoa» dela esan zuen Jauregik, ekonomia produktiboan

oinarrituta dagoelako. Honetaz, euskal industriaren jardueraren gorakada (% 7,4) azken hamar urteotako handiena eta 1988koaren parekoa izan dela azpimarratu zuen sailburuak.


Industriaren bultzadaz gain, barne eta kanpo eskariek oso bilakaera orekatua izan dutela dio Gasteizko Ekonomia Sailak. Hala, inbertsioak ongi funtzionatu zuen iaz, eta esportazioak mantendu egin ziren, atzerrira zuzendutakoak gutxituz joan ziren bitartean Estatuan eginiko salmentak gehitu egin zirelako.

Jauregik nabarmendutako beste adierazleak inflazioa eta soldatak dira. Prezioek beherako joera dute eta soldatak ekonomiaren egoerara egokitzen ari dira. Aldi berean, enpresariak gehitu egin dituzte beren mozkinak, eta hauek inbertsioetara zuzentzen ari direla ziurtatu zuen sailburuak.

Hazkunde ekonomikoak apaltzeko arrazoi nagusietako bat kontsumoaren ahulezia da. Hau ez da EAEn soilik gertatzen, Europa osoan baizik. Enpleguaren inguruko segurtasunik ezagatik, batez ere, herritarrek ez dute gehiegi kontsumitu nahi, eta horrek hazkunde geldiarazten du.


Enplegua gehitu zela ziurtatu du • Jauregik emandako datuen arabera, iazko BPGren hazkundeak enpleguan izan zuen eragina. Sailburuak ukatu egin zuen iaz enplegua galdu zela, eta 19.130 lanpostu sortu zirela ziurtatu zuen. Langabezia tasa % 23,8ra jaitsi zen, 8.000 langabe gutxiagorekin, biztanle aktiboaren kopurua 11.200 gehitu zen bitartean.

Iazko urtearen bukaeran 713.000 okupatu zeuden EAEn. Jauregik aitortu egin zuen iazko helburua 80ko hamarkadaren bukaerako 750.000 okupatuetara heltzea zela. X



EAEko iazko balantze ekonomikoak ezagutarazi zuen Jauregik.

XOUSE SIMAL



Leia: industria alor guztien parkea

Beste bi zentrorekin batera Arabako Parke Teknologikoa osatuko du atzo jakinarazi zuten

Felix Iriarte / Gasteiz

LEIA ARABAKO Garapen Teknologikorako Zentro bihur dadin azken urratsa eman zuten atzo Arabako Diputazioak, Jaurlaritzak eta SEA enpresariaren elkarrekin. 1997. urtean Jaurlaritzaren Sare Teknologikoan sartuko da, eta Arabako enpresen garapena bultzatzea izango du helburu.

Leia Arabako Garapen Teknologikorako Zentroa izango da. Atzo Felix Ormazabal Arabako diputatu nagusiak, Javier Retegi Jaurlaritzako Industria sailburuak, Roman Knorr SEAKo lehendakariak eta Javier Arregi Leia lehendakariak Leia Arabako Garapen Zentro bihurtzeko hitzarmena izenpetu zuten.

Diputazioak azpiegitura jarriko du. Hiru hilabete barru egoitza bukatuta egongo da, eta horretarako 200 milioi pezeta jarriko ditu. Finantzaketa, berriz, SEAREN, Diputazioaren, Gasteizko Udalaren eta Vital Kutxaren esku geratuko da. Enpresariaren elkarrekin 50 milioi pezeta jarriko ditu, aurrekontuaren erdia hain zuzen ere, Diputazioak 25 milioi, Gasteizko Udalak 15 milioi eta Kutxak 10 milioi. Zentroa Miñaoan eraikiko da. Orain arte Gasteizen zegoen, 1988. urtean sortu zenetik, Arabako Laboratorio Industrialak kudeatzeko Elkarteak izan baita.

1997. urteko urtarrilean Leia Jaurlaritzaren Sare Teknologikoan sartuko da, eta honako helburu hauek izango ditu, Kno-

rrek jakinarazi zuenez: teknologi berriak Arabako enpresei eskaintzea; giza baliabideak enpresei eskaintzea, kanpoko laguntza izan dezaten; eta kudeaketa elementuak enpresetan sartzea, enpresen lehiakortasuna eta kalitatea ahalbidetzeko.

Leia Arabako Parke Teknologikoan kokatuko da. Baina ez da zentro bakarra izango. Beste bi zentro eraikiko dira parkea osatzeko. Garapen teknologikorako bi zentro hauek, ordea, bertikalak izango dira, hau da, sektore jakin batzuei lagunduko die.

Leia industriako sektore guztiei lagunduko die, baina Aeronautikako Garapen zentroa alor honek bakarrik erabiliko du. Hirugarrena Energiako Garapen Teknologikorako Zentroa izango

da, eta hiruren artean Arabako Parke Teknologikoa osatuko dute.

Industria areonautikoak asko aurreratu du Araban. Hiru enpresa daude, Gamesa, ITP eta Sener, eta hiruren artean 70.000 milioi pezeta fakturatzen dute urtero. Zentro Teknologikoak laguntza emango die enpresa hauei eta enpresa horiekin harremanetan egongo direnei.

Jaurlaritzak, bestalde, Arabako Parke Teknologikoan egingo diren ikerketen herenak finantzatuko ditu, ikerketarako kontratuak Eusko Jaurlaritzak izenpetuko baititu. Leia finantzaketaren heren bat Eusko Jaurlaritzaren esku geratuko da, beste zentroatik egiten duen bezala. X

laburrean

Gasolina litroa 50 zentimo garestiago gaurtik

ERREGAIEN gehieneko salneurriek gora egingo dute gaurtik aurrera, Espainiako Industria Ministerioak onartu duenez. Super gasolinaren litroak 114,7 pezeta balioko du (4,6 libera inguru), orain baino 50 zentimo gehiago. Gasolina normalaren salneurriak ere igoera bera izango du, eta gaurtik 111,2 pezetan salduko da litroa. Gasolioa, berogailurakoa eta nekazaritzan erabiltzen dena, ez da asko garestituko. A eta B motako gasolioen salneurria berean geratuko da eta C motakoa hamar zentimo igo. X

Antartidako itsas baliabideak arriskuan daudela dio Greenpeacek

LEGEZ kanpoko arrantzak Antartidako itsas baliabideak arriskuan jartzen dituela dio Greenpeace talde ekologistak. Georgia uharteen inguruan legatz beltza eta notetenia beltza harrapatzeko lege kanpoko saio asko egiten direla salatu du Greenpeacek, batik bat Txile eta Argentinako arrantzontziek. Arrain horiek oso preziatuak dira Japonian eta bertara esportatzen dira. Egun, legatza eta notetenia beltzen arrantza mugatua dago -3.000 tonako kuota-. Baina Greenpeacek ikerketen arabera, baliteke legatza eta notetenia beltzen arrantza 15.000 tonaraino heltzea gaur egun. X

Langabeziaren kontrako Herri Batzordea eratu dute Zaratomon

LANGABEZIAREN kontra bat egin dute Zaratomoko (Bizkaia) alderdi eta sindikatu guztiek. Lehenik eta behin, herriaren egoera zein den zehatz-mehatz jakiteko inkesta zabala egin dute. Zaratomoko langabezi tasa % 33koa da, eta ikusi dute langabetu gehienek eskola agiria. Talde politikoen zein sindikatu guztien eginahalak bateratzeko Herri Batzordea osatzea erabaki dute. Aurrerantzean batzordeak heziketa ikastaroak bideratuko ditu lanbide zentrorik bat, eta enplegua sortzeko ekimenak bultzatu. X

Arabako industriako lanuzte tasa % 5,2koa da

ARABAKO industriako lanuzte tasa iaz azken hamar urteetako hoberena izan zen. Iaz % 5,2 lanordu soilik galdu ziren Arabako bigarren sektorean, SEA Arabako patronalak jakinarazi dituen datuen arabera. Lanuzte tasarik altuena 1992an izan zen, % 6,6koa izan baitzen. Bi urtetan, tasa horrek 0,6 puntu egin zuen behera. Lana uzteko arrazoi nagusiak gaixotasuna eta istripuak dira. X